

IRAKASKUNTZA

Euskarazko irakaskuntza indartzea eta oztopoak gainditzeko laguntzea

BL-EGIZU	1. HELBURUari ekarpena
EKARPENA	Euskarazkoak ez diren ikas-eredu publikoak desagertzea eta euskarazkoak ez diren eskola kontzertatuak dirulaguntza publikorik ez jasotzea. Eskola publikoen kasuan desagerpena progresiboki egin daiteke bere garaian Zubileta eskolan egin zen bezala. A eredutik B eredura eta B eredutik D eredura.
Ez da onartzen	
AZALPENA	Getxoko Udalak ez du eskuduntzarik ez ahalmenik horrelako ekarpenak indarrean jartzeko.

BL-EGIZU	1. HELBURUko 4. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Haur eta gazteei zuzentzen zaizkien jardueren %75a behintzat euskaraz izan beharko litzateke.
Proposatutakoa betetzeko bideak jarrita daudela irizten da	
AZALPENA	Getxoko Udalaren helburua ume eta gazteei eskaintzen zaizkien eskola-orduz kanpoko formakuntza guztia edo ia guztia euskaraz izatea da. Asmo hori ekonomikoki bideragarri eta gaur egungo hizkuntza errealitatera egokitua egiteko jarri da martxan BIZI egitasmoa. Edozein kasutan kopuruak helburu dira baina bidea progresiboa izango da eta progresio horren erritmoa, prozesuan parte hartzen duten agenteen (guraso, ume, gazte, ikastetxe...) adostasunak markatuko du neurri handi batean.

BILDU	1. HELBURUko 4. ekintzari ekarpena
EKARPENA	BIZI proiektuaren garapenaren jarraipena egin behar da.
Gaur egun egiten da	
AZALPENA	Musika Eskolak, azken urteotan, BIZIren barruan burututako ikastaro eta jardueren jarraipena egiten du umeen gurasoei bidalitako inkestaren bidez. Inkesta horretan ikastaroen asebetetzeaz galdetzen da eta zailtasunak eta oztopoak identifikatzen dira; horrez gain, gurasoen iritzia eskatzen da bere seme edo alabari eskaintzen zaion hizkuntza ereduaren inguruan eta azkenik zertan hobetu ahal den galdetzen da. Argi dagoenez, inkestaren helburua hobekuntzak sartzen joatea da eta ereduaren garapen erritmoa hartzaileen arduradunen nahierarako egokitzea da.

BL-EGIZU	1. HELBURUKo 7. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Hizkuntza ikasteko akademiak ez direnak ikasleak euskaraz laguntzeko gai izan behar dute, ikasle horiek gazte euskaldunak direlako.
Ez da onartzen; udalaren eskuduntzetatik kanpo geratzen da	
AZALPENA	<p>Aurten 10 urte beteko dira Getxoko akademiak eta zentroak eta Getxoko Udala elkarlanean ari direla euskararen erabilera sustatzeari begira. Gaur egun, 35 akademia eta zentro inguru dira Udalarekin hitzarmena sinatuta dutenak. Helburua argia da: Getxoko akademiek eta zentroek, batez ere, ume eta gazteei begira, euskaraz antolatzen dituzten jardueren berri ematea Getxoko herritarrei.</p> <p>Elkarlan horretan beste pausu bat eman nahian, 2016an, Getxoko akademiek eta zentroek, Udalarekin izenpetuta zituzten hitzarmenak berritu egin ziren. Horretaz gain, urtero jartzen gara eurekin harremanetan hitzarmenen jarraipena eta betetze-mailaren ebaluazioa egiteko. 2018an, hausnarketa konpartitu bat abiarazi dugu eurekin.</p> <p>Getxoko akademien hizkuntza-egoera ez da denetan berdina; batzuk, dagoeneko, euskaraz eskaintzen dituzte zerbitzuak eta beste batzuk lanean ari dira Udalarekin elkarlanean.</p> <p>Ezin dugu ahaztu, hala ere, eskaera ere sustatu behar dela, alegia, familiek akademiara jotzen dutenean, familiek eurek eskatu behar dutela euskarazko zerbitzua eta horretan ere lan egin behar dugu denok.</p>

BILDU:	1. HELBURUKo 7. ekintzari ekarpena
GALDERA	Nola? Zein bide urratuko da hori lortzeko?
	<p>Aurten 10 urte beteko dira Getxoko akademiak eta zentroak eta Getxoko Udala elkarlanean ari direla euskararen erabilera sustatzeari begira. Gaur egun, 35 akademia eta zentro inguru dira Udalarekin hitzarmena sinatuta dutenak. Helburua argia da: Getxoko akademiek eta zentroek, batez ere, ume eta gazteei begira, euskaraz antolatzen dituzten jardueren berri ematea Getxoko herritarrei.</p> <p>Elkarlan horretan beste pausu bat eman nahian, 2016an, Getxoko akademiek eta zentroek, Udalarekin izenpetuta zituzten hitzarmenak berritu egin ziren. Horretaz gain, urtero jartzen gara eurekin harremanetan hitzarmenen jarraipena eta betetze-mailaren ebaluazioa egiteko. 2018an, hausnarketa konpartitu bat abiarazi dugu eurekin.</p> <p>Getxoko akademien hizkuntza-egoera ez da denetan berdina; batzuk, dagoeneko, euskaraz eskaintzen dituzte zerbitzuak eta beste batzuk lanean ari dira Udalarekin elkarlanean.</p>

	Ezin dugu ahaztu, hala ere, eskaera ere sustatu behar dela, alegia, familiek akademiara jotzen dutenean, familiek eurek eskatu behar dutela euskarazko zerbitzua eta horretan ere lan egin behar dugu denok.
--	--

BILDU		3. HELBURUko 12. ekintzari buruzko galdera
GALDERA	Nola indartuko da? Zein dinamika abiatuko da horretarako?	
ERANTZUNA	<p>IkasGehi, urteetan funtzionamenduan diharduen lan-mahaia da. Bertan, Euskara Zerbitzua, herriko ikastetxeak, Getxoko Berritzegunea eta zentroetako gurasoen elkarteak batzen dira informazioa trukatzeko, euskarazko formakuntzan aurrera egiteko dauden baliabideen berri emateko eta abar.</p> <p>Esan beharra dago, oso emaitza positiboak ematen dituela eta parte hartzea oso handia izaten dela. Hala ere, uste dugu, hausnarketa abiatu behar dugula parte hartzen dutenekin bilgunearen funtzionamenduaz. Hausnarketaren helburua da, funtzionamendua are hobea izan dadin lortzea.</p> <p>Hausnarketak emango dituen emaitzak ezagutu barik, Euskara Zerbitzuaren iritziz, IkasGehiren indartzea bi bidetatik aurreikusi liteke; alde batetik gaur egungo partaidetza kopuruan handituz eta bestetik euskarazko hezkuntza lehentasun ez duten ikastetxe eta guraso elkarteak erakarriz.</p>	

BILDU		4. HELBURUko 15. ekintzari buruzko galdera
GALDERA	Zeintzuk dira neurriak?	
ERANTZUNA	<p>Ez da aurreikusten tokiko aldaera hori berreskuratu eta berriro gure gaurko gizartean txertatu ahal denik baina balio handia izango luke horko lexikoa, esamoldeak eta joskera gaur egun darabilgun batuan erabiltzera helduko balitz, batez ere, hizkera bizi eta gaurkotua eskaintzeko bidea izan ahal delako.</p> <p>Tokiko euskara aldaerari buruzko hainbat lan egin izan dira azken urteotan. Lan hauek gaur egungo corpusa jaso eta gordetzeko egin izan dira eta aurreko plangintzaldian hasita eta Getxorekin euskara-aldaera partekatzen duten inguruko udalekin eta erakunde publikoekin elkarlanean, gazteentzako materiala sortzen egin da lan.</p> <p>Gazteentzako sortzen den materialak bitarteko telematikoen bidez erabili ahal den jolasa izan behar du eta urteroko kudeaketa planetan zehaztuko den arren, ematen du datozen urteetan ere mugikorretako aplikazioen bitartez garatzen diren hizkuntza-jolas partekatuak izango direla bidea.</p>	